

nahian. Bitartean, Aljeriako errefuxiatu guneeetako sahararrek nazioarteko laguntzaren bidez egiten dute aurrera.

**EZAGUTU....**  
**“EZKUTUAN DITUGUN ERREALITATE**  
**EZBERDINAK”**

**RIO DE ORO DURANGALDEA**

Jende askok ez du Saharako benetako errealitatea ezagutzen. Egunerokotasunean gertatzen diren gauza asko aurrean ditugu, baina ez diogu garrantziarik ematen.

**GAUR EGUNGO SAHARAKO EGOERA**

Urria eta azaroa bitartean, Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu zuen. Rio de Oro eremua hartu zuten sinbolikoki.

Marokoko Gobernuak 150.000 kolono ezarri zituen lurralde okupatuetan. Neurri horiekin sahararren kulturaren eta nortasunean eragin nahi izan zuten.

Gaur egun, 2.700 kilometro baino gehiago dituen hesi batek banatzen ditu sahararen bi aldeak. Hesi ondoan, mina ugari jarri dituzte marokoarrek, sahararren familien arteko erlazioak eten



**EL MURO DE LA VERGÜENZA**

1980an hasi zen honen eraikuntza. Harresia area, harriak, alanbre-hesi, zanga eta minaz osaturiko muga da. 2.720 km-ko harresia da eta 2,5 metroko altuera du, zonaldearen arabera altuera handiagoa du.

Marokok kontrolatzen dituen aldeak, beste aldekoen sarrera ekiditu nahian, harresiaren zenbait toki konkretuetan pertsona armatuak daude.



Durangaldean, badago elkarte bat sahararen askatasuna defendatzen duena. Rio de Oro du izena eta Durangon eta Izurtzan aurki dezakegu. Bertako partaide batekin jarri gara kontaktuan, bera langilea da eta bere ikuspuntua eman digu, elkarteari buruz genekiena baino gehiago azaldu digu.

## RIO DE ORO DURANGALDEA

Rio de Oro sortzen da, durangoko gazte talde bat udaro joaten zenean auzolanak egitera italiara eta bertan haur sahararrekin, konkretuki, behar bereziak zituzten hurrekin, lan egiten zuen kanpamentu bat aurkitu zutenean. Bertan zenbait egun pasatu zituzten eta egonaldi horren ostean, konturatu ziren ez zekitela ezer ere ez bertako egoerari buruz. Uda ostean, informazioa bilatu zuten, gaiari buruz irakurri zuten, eta horren gainean sentsibilizatzen hasi ziren.

Bertako jendeak zituzten beharretaz ohartu ziren, eta udan, nagusiki, haurrak handik irteteko duten beharraz konturatu ziren. Denbora tarte horretan, prozedura medikuak, tratamenduak, espezialistak, estimulazio mota desberdinak eta aisialdirako

denbora eskaintzen die Rio de Oro hurrei. Horrela sortu zen elkarte hau.

Rio de Oro proiektu desberdinak ditu, ezagunena hurrena da; udan etortzen diren hezkuntza bereziko hurrena.

Bertan bi eskola mota daude: eskola arrunta eta eskola berezia. Eskola berezi horren barruan dauden haur guztiak ekartzen saiatzen da elkarteak. Abenduan egiten duten bidai batean aukeratzen dira eta behar handienak dituzten haurrak aukeratu eta gero, udan hona ekartzen dituzte.



Saharako gizartea oso familiarra da. Alde batetik, familiak ez dute etxetik kanpo lan askorik egiten, beraz, beraien hurrei eskaintzen diete denbora eta maitasun gehiena. Gainera ez dago txarto ikusita haur batek aniztasun funtzionala izatea. Bestetik, elikadura eta higiena ez da asko zaintzen, han dituzten baliabideak azken batean, ezberdinak direlako. Beste gizarte bat da,

beste errealitate bat, gauzak ulertzeko beste modu bat dute...  
Baina haurrak ondo zainduta egoten dira.

Haur bakoitza mundu bat da, haur bakoitza errealitate bat da. Haur asko erdi behartuta etortzen dira, normala da haur askok Rio de Orora etorri nahi ez izatea hasiera batean. Beraien familiarengatik banatu behar direlako, hemen beste hizkuntza bat mintzatzen delako, beste kultura bat delako, beste gizarte bat... Eta askotan ez da batere erraza izaten. Baina badaude ere, hemengo ohituretara oso ondo moldatzen diren haur asko. Oso garrantzitsua da ikustea haurrak ea nolako gogoekin datozen, baina garrantzi handiagoa ematen diogu, saharatik datozen ilusio berdinarekin bere herrira berriz bueltatzen direla. Guretzako tristea izango litzateke benetan, ez balute inolako gogorik beraien familiak ikusteko.

